

## **DIRUA, BETI DIRUA!**

Maitena Duhalde

*Ustaritz, 13 urte*

Duela urte ainitz, mende batzuk seguruenik, Euskal-Herriko iparraldeko kostaldean, Ziburu deituriko herrixkatxo bat esnatzen ari zen. Hango oilarrek, kukurruka ausartak joak zituzten, eguzkia jeikitzen ari zen ezti-eztia. Portu ttikian, itsason-tziak balantzaka zebiltzan, ur lasaiaren gainean. Hain lasaia zen ingurumenean, gizon gihartsuak eta emazte burutsuak bizi ziren. Laborantzatik bizi ziren apur bat, baina gehien bat arrantzari esker jaten zuten. Emazteek, beren senarrak itsasoan zeudenean, luzaz beha egon behar baldin bazuten ere, biziki airosa eta laketa zen gune hura. Gisa horretako senarra zeukan Josefinak, Ramuntxo-rekin ezkondu berria baitzen. Elkar biziki maite zuten, zoriontasunean murgilduak bizi ziren. Haien poza emendatzeko, haur baten etorrera goaitatzen zuten. Biek beldur apur bat bazuten, senarra ardura kanpoan izanen baitzen, itsaso zabalean.

Bi maiteminduek, euskal estiloko etxe bat zuten bizitoki. Harriz eta zurez eraikia, ezkaratza zeukan erdi-erdian. Portutik hurbil aurkitzen zen, eta handik gatz usain freskoa sartzen zen, seilarutik sotora. Barnean, itsasoko hezetasun gazia somatzen zen; oso atsegina zen sukaldeko zurezko mahai gainean zegoen pentzeetako lore sortaren usaina, beste

urrin batzuekin nahasten zen. Landareak hain amultsuki eskaintzen zituen ontzian, bi hitz itsasirik ziren altzairuan: *Josefina* ♥ *Ramuntxo*.

Diru eskasarengatik, emazteak oilo andana hazten zuen etxe gibelean. Oilategiaren ondoan xerria gizentzen eta bizpahiru untxi hazten zituen. Lan hori guzia egiten zuen, senarrik gabe bizi ahal izateko; baina ez zituen denak jaten, gehienak azokan saltzen zituen. Etxeko jaunak, aldiz, altzariak zizelkatzen zituen oso ederki. Plazerra zen harentzat zura lantzea. Oraindik arta gehiagorekin, bere haurra sortuko zenerako sehaskatxo fina eraikitzen ari zen. Ez zen batere alferra gazte hura, eta ez zen sekula gelditen lan egitetik. Baina gaixoarentzat, langilea izatea ez zen aski, lan on bat aurkitu behar zuen, arrantzale izateak ez baitzuen aski diru ematen. Gainera, sortuko zen alabatxoarekin ezin izango zuten gehiago oraingo moldean bizi edo iraun.

Gau argia zen, besteak baino argiagoa. Ilargi betea zegoen eta izarrak inguruan diztiratzen ari ziren. Emazte gaztea haurra sabeletik indar guziz ateratzea bukatzekotan zen. Senar beldurtua, kanpoan alde batetik bestera zebilen, zainetan, urduri. Pentsatzen ari zen, etengabe pentsatzen. Bi galdera zebilzkion buruan itzuli-mitzuli: “Zergatik ote da hain luze?” “Ongi ote dira ama-alabak?”. Denbora luze baten ondotik, alabaren orroa entzun zen. Berehala, bere ama etorri zitzaion, ahapeka barnera sartzeko galdeginez.

Han, ohe gainean, emaztea izerdiz beterik dago. Bere bi emazte kuttunak elkarturik daude, baina

bata bestea baino ahulagoa da... Sortu berria eskaintzen dio amatxok. Kasu eginez hartu, eta kulunkarazten du isildu arte.

Biharamunean, oilategiko oilar bakarrak iratzarri zituelarik, buraso berriak ohean goxoki besarkatuak ziren. Irrino eztien trukada. Bitartean, berria zen arrabotsa entzun zuten: neskatoarena. Ama zalu-zalua joan zen oihu saminez ari zenarengana. Sehaskatsotik hartu eta bularra eman zion. Haren gosea!

Gosalduekin, Ramuntxo etxetik atera zen, herrian goiti-beheiti ibiltzeko. Kale izkinean, saka-trapu bat bezala beztitutako gizon zahar bat gurutatu zuen. Orduan, haur sortu berriaren aitak jainkoari erregutu zion, ez zezan gizon hura bezain premia gorrian ezar. Geroago tabernara sartu zen, bere lagunei berri ona emaitera.

Senarra itsasora berriro joan zenetik denbora puska bat iragana zen. Josefina sukaldean zen, oilasko bat lumatzen. Bere gogoetek itotzen zuten. Zenbaitzuk atsegingarriak ziren, besteak beldurgarriak. Bere begi urdinekin ingurura begiratu zuen. Gibelean zeukan ximiniak berotzen zuen gelatxoa, neguko arratsalde luzeak biziki hotzak baitziren. Urrunago, leihotik elur malutak erortzen ikusten ziren. Handik hurbil, altzari baten gainean buztinezko ontzi bat pausatua zen. Barnean, sos apur bat gelditzen zenentz begiratu zuen. Jadanik hiru hilabete Ramuntxo itsasora joan zenetik! Dena ongi gertatuz gero, egun batzuen buruan etorriko zen. Hala ere, diru eskasa sentitzen hasia zen gogorki.

Goizero bezala, senarraren etorreraren berri bila joan zen portura. Han ikusi zuen bere bihotzeko kuttuna eraman zuen itsasontzia. Masta xut-xuta zeukan, eta gainean itsatsita, euskal ikurrina. Bai, hura zen! Senarra itsasontzitik keinuka heldu zitzaion. Biak joan ziren etxera, gertatutako gauzak bidean elkarri kontatuz. Etxeratu-eta, irabazitako dirua, ontzian ezarri zuten. Apurtxo bat jan, eta berriz itzuli zen gizona kaira.

Josefina, sehaskaren aldamenean zegoen makurtuta. Haurtxoa irriz zegoen, ohean jostatzen. Ama aldiz, triste zen, beldur handia nabaritzen baitzuen. Arrantzaleek ez zuten gauza handirik ekarri, purruska zerbait; betikoan ziren: diru eskasaren mehatxu beltza! Une berean gauza harrigarri batez ohartu zen: alta, buraso batek ez luke inoiz ahortzi beharko! Egia aitortzeko, alabak ez zeukan oraino izenik! Eta ama birjinari otoizka hasi zitzaion, errukia ukanukan zezan. Honela etorri zitzaion ideia: Muskoa deituko zuen neskatoa, marinelen zaindaria den Ziburuko amabirjina bezala.

Etxe aldera itzulia zen Ramuntxo, urrats luzeak eginez, eta poz-pez itzuli, gainera. Han hasi ziren hizketan senar-emazteak. Arrantzaleak bere asmoa azaldu zion etxeko andreari: kortsario izatea. Emazteak, ikaraz beteta, ezetz erran zion; baina pentsatu ondoren erabaki zuen aterabide bakarra zela, eta joatera utzi . u lasai bat pasa ondoren, iritsi zen portura gizona.

Untziek, beti bezala, uraren abiaduraz zipriztinak botatzen zituzten. Arrain ustelaren usain naz-

kagarria nabarmentzen zen. Itsasontzi zaharkitu baten aintzinean gelditu zituen bere urratsak arrantzale gazteak. Hurbiltzerakoan, itxura zikin eta gaiztoa zuten gizon azkarrek burua itzuli zuten, denek batera, behako ilunekin begiratuz. Sartu berriari bizkarrezurra ormatu zitzaion. Gorriz bez-titurik, begiak erakartzen zituen pirata mintzatu zitzaion. Oso itsusia zen. Ile bakan batzuk gelditzen zitzaizkion, eta larru biluztuak uharte bat osatzen zuen ilezko uren erdian. Begiak maiz kliskatzen zituen, zeren larruaren barrenean baitzituen, iduriz itota. Sudurra, goiti buruz zuen, airea sentitu nahiz bezala; bi zilo sakonen artean, karatxo lodi bat hazten ari zitzaion. Bere bizar latz beltzak, ez zion aurpegia txukuntzen. Bere sorbalda zabalen gainean, papagaio bat zegoen burua jira-biraka zuela. Xori begi bakarrak zapi ilun bat zeukan begi galduan, kukutzeko gisan. Bere luma finak odol kolorekoak ziren, arrantzale berezi haien jantziak bezala. Beherago, atorra xuri zikinaren lehen hiru botoiak idekiak ziren, ile kuskulatu batzu ateratze-ra utziz. Esku muturretan maukak hetsiak ziren zilarrezko bi borobilekin. Galtza, belauneraino jausten zitzaion; azpitik, mokanes portalezko panti delako bat ikus zitekeen, aztalak airean utziz. Oinetakoek, behi larru beltzez eginak, mihian urrezko lauki bat zuten. Ikusgarria zen jantzietako ber oihalarekin eginiko burukoa. Txapel hori erditik moztua zen eta bi puntuak, jaunaren sudurra bezala, gorantz zihozten. Bi esku leunek, largabista luze bat atxikitzen zuten. Horrelako aparailuek

erakusten zuten gizonaren moltsaren pizua. Baina ikusten zen asko baliatu zuela eguzkiak ere koloreak higatu zizkiolako ehunari. Erran bezala, Ramuntxok bere etorreraren arrazoia azaldu zion. Kortsarioak gogoetatu zuen, bizarra ferekatuz, eta eskaera onartu zion, erranez ez zela gazte aski aurkitzen halako lanak egiteko. Hala ere, kontratu bat izenpetu behar izan zuen: itsu-mutsuan siñatu ere, aukeztu zion paper hori eta zaharkituaren gainean hizki lodiz idatziriko hitzak ez zekizkielako irakurtzen. Ondoren, bere puskak hartu eta barnera sartu orduko, itsasontziak ur zabaletara eramán zituén.

Hilabeteak ziren arrantzan ari zirela eta lanaren fruituak agertzen hasiak ziren. Baina ez zituzten arrainak bakarrik harapatzen. Tarteka, itsasontzi batzu kausitu eta kapitainak agindurik, ezagutzen ez zituzten ontzietako gizon harrituak hil ondoren, aurkitzen zituzten urre zaku guziak hartu eta ihes egiten zuten. Ramuntxok ez zuen gogoko, baina ezin zuen atzera egin, kontratu madarikatu haren-gatik kortsarioen menpe baitzen. Kostaldetik hurbiltzen zihoazela, bere alabarentzat irabaziriko dirua zenbatu zuen. Kontu ederra ateratzen zitzaien eta aski pozik zegoen. Patxada osoan, ur gaziari begira egon zen. Urdin ilunaren azpian zegoena ikusi ezinik, zeruertzero begiratu zuen: eguzkiak hodeien artetik pasaia bat xerkatzen zuen. Urrun zegoen lurra, iduriz hurbildu ezina.

Anartean, Josefina etxean zegoen, aski lasaiki biziz. Baina herriko emazteek jakin zuten senarra

kortsario egin zela; orduan, herriko aberatsenek baztertu zuten. Geroztik, bere gibelean zurrumurruak eta irriak entzuten zituen. Ez zitzaion batere gustatzen honelako arazoak ukaitea, baina pentsatu zuen halako atso zaharrei ez zitzaizela kasurik egin behar.

Itsasontzia porturatu zen noizpait. Euskalduna ontzitik jaustean kapitainak erran zion, elkar ikustean, berriro elkarrekin joango zirela itsasora. Senarra ihes joan zen bere etxeraino. Han, emaztearekin egon zen hizketan; baina ez zion deus erran kortsarioekin eginiko lapurketez.

Ondoko egunetan, eta baita urteetan ere, ez zuten diru eskasik ukan. Zoriontsu bizi ziren eta aitak bere alaba haunditzen ikusi zuen. Laster ahantziak zituen kortsarioak eta haien gaiztake-riak.

Baina egun batez, Ramuntxo portuan ibilki zela, kortsarioa ikusi zuen; beti berdina, baina apur bat zahartua, bere ontzia bezala. Itsas ertzean zegoen tente, eta haren begitarte maltzurak erakusten zuen sator lanean ari zela. Ikusi orduko, xistu egin zion gazteari, hurbiltzeko aginduz. Baina hura, zalu-malu, itsasontziko oroitzapen latzak gogoan, zitzu bizian joan zen lasterketa. Kalera iritsi zen. Han, zakarrontzien artean ezkutaturik, toki seguruan zelakoan zen, baina berantegi zen; kapitainak lepotik azkar heldu eta beste laguntzaleengana bota zuen. Buruzagia irriz hasi zen: irri gaizto bat, belarrietan min egiten zuena. "Ha! Ha! Ha! Ha!" Eta besteek berdin, baina azkarrago: "Ha! Ha! Ha!

Ha! Ha! Ha!"; haien debuzko irriak geldi ezinak ziren. Euskaldun gazteak ulertu gabe begiratzen zituen banan-banan. Eta orduan kontratua atera zuten, irakurri ere bai. Idatzia zenaren arabera, bere ondasun guziak eman behar zizkien, burutik eginak ziren gizon haiei. Oinak herrestaka, etxe aldera eraman zuten, dena hartu nahian. Gaixoa, ohartu zen berak eginiko zozokeriarengatik, gizon tropa hra aberastuko zela. Bizkor berritz itzuliak ziren pozik portura, etxeko ondasun guziak ebatsiz eta familia premia beltzenezan utzita.

Berriz hasi zen Ramuntxo arrantzale sinple gisa, bere bihotzeko bi emazteak utzita. Haiek biak, andere baten babesean sartu ziren, ez baitzuten beste tokirik lo egiteko. Pobreagoak zirelarik bezala, itsasuntziaren kairatzea goaitatu behar zuten.

Goiz batez, egunsentian, oiuhu bortitz bat entzun zen. Jende zenbait ateratuak ziren. Josefinak, bel-durturik, ohetik jeiki eta lehiotik begiratu zuen. Han, denak korrika ari ziren zerbaiti ihes egin nahian bezala; baina zeri? Etxe batetik soldadu bat atera zen, bere burdinezko babesarekin. Odola isurtzen ari zen, toki guztietan. Erdaldunak dene-tan zeuden: ez zen aterabiderik. Bere haurra besotan hartu zuen; soldaduak galdera andana egin zion. Ezin izan zuen erantzun, zeren gizon indartsu batzu sartu eta bortizki eraman baitzituzten.

Arrotzek erraiten zuten eskubide osoa zutela sorgin batzuk erretzeko. Hitzik atera gabe, pentsatzen hasi zen: zergatik akusatuak ziren? Berak ez zuen magiarik egin, bakarrik edabe bat Muskoaren



mafrundia sendatzeko. Hala ere, herriko emakume eta haur guztiak toki ezezagunetara eramanak ziren indarrez.

Bidea ahigarria izan zen, eta jaunaren gaztelura helduta, pausatu ziren istant batez. Gela ilun batean sartu zituzten. Josefina pozik zen, basa haiek ez zituztelakoan ama eta alabak bereizi. Ez zuten janaririk, baina iturriño bat aurkitu zuten, ziegako zoko batean. Kanpoan, zutabe luzeak plazaren erdian ezarriak zituzten. Egun batzuen buruan lehen biztanleak bizirik erreak izan ziren. Bota zuten oihua oraindik entzuten ahal da.

Arrantzaleak berriz Ziburura heltzean, harriturik begiratu zituzten bide deseginak, etxe erreak, eta ohartu ziren ez zela nihor kalean. Bakoitza bere bizilekura sartu eta segidan atera zen, ikusiz dena hutsa zela. Denak elgarretaratu, eta erabaki zuten mendekatzea. Odol usainak goitikakoa ematen zien; hala ere, aurrera joan ziren. Inkisidoreen aztarnak segitu zituzten. Denbora luzea eman zuten gaztelua aurkitzeko, zeren arte batzuetan erori baitziren. Oihan batetan gelditu eta kausitzen zuten materialarekin, armak egin zituzten. Azkenean, atzerritarren gotorlekua agerian zuten. Etsaien hiltzeko prest ziren. Isil-isilik, haienganaino hurbildu ziren eta ustekabean hartuz, denak hil zituzten. Plazarantz begiratu eta ke andana ikusi zuten hodeiekin nahasten. Egurren artean, gorputz erreak errauts bilakatuak ziren. Baina oihuak entzun-eta hara buruz joan ziren geldituriko emazteak salbatu nahiz. Madarikatua izanen zen gune-

tik presaz atera eta familia guziak, batzuk pozik, besteak triste, andere zenbait erreak izan baitziren, herrira itzuli ziren. Ramuntxo eta Josefinaren zoritxarrerako, Muskoak ez zuen bidaia jasan: zerura igo zen.

Gertatuaz kexu, senarrak ikusten zuen guziari ostiko emaiten zion. Harri lodi bat mugitzean erori eta azpian egurrezko zerbait topatu zuen. Eskuekin lurra induskatu ondoren, kutsa bat atera zuen. Ideki eta barnean urrea zela ohartu ziren. Apur bat baretuago arribatu ziren etxera. Ez zirelako zikoitzak, beste herritarren artean ere banatu zuten kausitua. Horrela, bai gauza txarrak eta baita gauza onak ere partikatzen zituzten.

Handik harat inork ez zizkien aberastasunak lapurtuko: ez kortsarioek ez eta kanpotiarrek. Entzuna dut ere geroztik, diru eskasik ez izanik, beste bizileku erosoago bat ukan zutela. Muskoarentzat pena latza izanik ere, ez kezka, beste mutiko eta neska andana ukan baitzuten. Geroztik, gertakari bortitz haiek pasatu ondoren, egunak eta gauak egunero bata bestearen ondotik agertzen segitu dute.